

URTEROKO «OLERTI-EGUNA» Larrea'n

Igaz, aspaldiko urteotan emen Larrea'n ospatzen dugun «Olerti-Eguna»-ri indar geiago ezartearren, berau pizkat eraberritu naia agertu zan olerkari ta enparauen artean. Beraz, zirikatzaillak beti eder dira-ta, aurreko urteetako jardunbidea zerbait aldatu egingo dugu aurten, obertuz jakina.

Igazko poesi-jaia ospatuta gero, Eusebio Erkiaga, lekeitiar olerkari jatorrak onela idazten zidan: «1978 Olerti-egunaz zerbait azaldu genduan, baiña musturrak egoki zehaztu barik. Bazkalorduan, Zubikarai'k zerbait agertu eban, arako olerki-gaia gura ta guraczkoa baiño, aske lagatea edo... Onetan, zerau bururatu jat niri. Ikusi puntuok:

Lehenik.—1978'gko «Olerti-Eguna», Larran, Arana Goiri'tar Sabin-i opa, egokiera onezaz: «Sabin, olerkari». Beraz, euskal olerkari.

Bigarren.—Lirika saillean, bestetan bezela, edozein gai izango da, egillearen gogara, gai ezarririk bage, ez beharkunik ez neurrik.

Irugarren.—Lirika sail orretan, meta bi izango dira, epaikariek euren zeregiña errezago ta aiseago bete dagien; au da, azturazko bertsu neurridun eta errimadunena alde batetik, eta bertsu aske ta neurrigabeena bestetik. Merezigarririk balitz, sari bana meta bakoitzeko olerkirik onenari.

Laugarren.—Olerki-jai au, berezi ta aparteko izango danez gero, sari obi-eza ezarri da, eta ain zuzen, izlauezko Saio lanari eskeiña. GAIJA: «Arana Goiri'tar Sabin, olerkari». Euskeraz egiña; neurria, 50 orrialde gitxienez, folio tamañuan, lerroz lerro bitartea utsik utzirik. Saria: 5.000 pezeta».

Nik, nere aldetik, ez dut oztoporik orduan agertu ta ontzat artu an asmo txalogarri au aurrera eramateko. Azken urteotan beti egin an dioguna olerkari naiz euskal idazle bati omenaldi berezi bat, Oler-eguna dala-ta noski. Aurtengoa bedi gure abandotar maixu aundiaren oratzarrez.

Aurten, bada, lau sail izango dira: I. Lirika saila; II. Poema saila; III. Bertso saila, ta IV. Saio saila. Lanak bialtzeko epea: Urrillaren azkenengo eguna. Zuzenbide ontara igorri: Aita Onaindia. Larrea-Amorebieta (Bizkaia).

Jaia amaika ta erdietako meza ostean asiko da. Eta jaikuneari akademigiroa ezarteko, olerki sarituak irakurri ondoren, Saio lana ere egilleak berak irakurriko digu; lana, luze samarra balitz, aren muiña ta laburpena azalduko digu.

Aita Onaindia

BEREZIARTUA ARGAZKIAK

Argazkiak egiten dira ezkontzetan Euskal Erri guztian.

Tresnak daukaguz zeuk argazkiak egin dagizuzan.

Gure etxea zabalik daukazu era onetan:

astegunetan: 9'tik 1'ra ta 4'tik 8'ra.

jai-egunetan: 9'tik 12'ra.

Jauregi'tar J. kalea
Urrutizkiña 673 04 24

ZORNOTZA